

NAZIOARTEKO EBALUAZIOAK ETA HEZKUNTZA SISTEMEN HOBEEKUNTZA:

KALITATEA ETA EKITATEA HELBURU



Josu Sierra Orrantia
ISEI-IVEI

EHU-ko 2003 Uda Ikastaroetan
Emandako ponentzia

ISEI-IVEI



ZER IKAS DEZAKEGU NAZIOARTEKO EBALUAZIOETATIK?

- ◆ Nazioarteko Ebaluazioak Hezkuntza Sistemak hobetzeko motibaziorik onenetako bat dira momentu honetan.
- ◆ PISAri esker adibidez, hausnarketa zabal bat egin da hainbat herrialdetan eta hezkuntza erreformak bultzatzen ari dira egun haren ondorioz.
- ◆ Ebaluazio hauek ereduak ematen dizkigute eta **hobekuntza faktoreak** erakutsi ere.

ALEMANIAN ADIBIDEZ

BERLIN, Germany (CNN) --Schools in Germany are being encouraged to extend their opening hours in a bid to increase standards.

Under an agreement between federal and state governments, schools will be able to stay open well into the afternoon and evening, instead of closing at around 1 p.m., as is the case now.

The government has agreed to commit four billion euros to developing up to 10,000 such schools over five years. The move is largely in response to an education study conducted by the Organization for Economic Cooperation and Development (OECD) in December 2001 in which Germany scored badly.

ZER IKASI DUGU JADANIK?


- ◆ Eraitza onak eta ekitatea bultzatzea ez da amets bat. Posiblea da eta horrela egiten dute herrialde batzuek.
- ◆ Hezkuntza Sistemaren paper garrantzitsu bat jatorrizko diferentzia soziokulturalak konpensatzea da, ikasleei aukera berdintasuna ematea beraien maila soziala edozein delarik.



PISA 2000 EMAITZAK: IRAKURKETA


Iturria: OCDE

Finland Korea Canada Japan Ireland New Zealand Australia United_Kingdom Sweden Belgium Austria Iceland Norway France United_States OECD_Media Dinamarca Suiza España Repub. Checa Italia Alemania Liechtenstein Polonia Hungria Grecia Portugal Rusia Latvia Luxemburgo México Brasil




ESTATU ESPAINIARRA ETA PISA 2000

5. Mailako irakurleen kopurua oso urria da.



Euskal ikasleek Estatuko laginaren barruan parte hartu zuten. 2003an gure lagin propioarekin parte hartzen ari gara ordea.

PISA-Irakurketa eta aldagai indibidualen arteko korrelazioa (PISA 2000 Estatuan)




ALDAGAI INDIBIDUALEEN PISUA

- ◆ Handiagoa da ikastexe arlokoena baino.
- ◆ Ikaslearen Maila Soziokulturala adibidez.
- ◆ Arazoa zera da: Hezkuntzarentzat ez dela erraza aldagai indibidualetan eragitea.
- ◆ Jatorri Soziokultural baxuko ikasleen errendimendua hobetzeko eskolak izugarri konpentsatu beharko luke beraien gabezia.
- ◆ Noraino egin daiteke hori?

Ikastetxe eta gelako aldagaiak eta irakurketa (PISA 2000 Estatuan)

Ikastetxearen maila soz
 Etxekolan orduak
 Pribatua
 Ikasle kopurua gelan
 Irakasleen motib
 Ratio ikasle/irakasle
 Ikasle kopurua ikastetx.
 Urteko ordu lektiboak
 Ikasle-irakasle klima



Iturria: INCE



Irakasleekiko klima txarra
 Gelako lanean arazoak
 Ikasleen portaera arazoak

-0,3 -0,2 -0,1 0 0,1 0,2 0,3 0,4 0,5

ISEI-IVEI

IKASTETXEKO ALDAGAIK

- ◆ Hemen eragin dezake batez ere Hezkuntza Administrazioak.
- ◆ Walo Hutmacher-ek zioen bezala, ikasle batzuei babes berezia eskaintzen bazaie, besteek ere gauza bera eskatuko dute.
- ◆ Ez da erraza diskriminazio positiboa baina bide bakarra dirudi.
- ◆ Hala ere, desabantail indibidualak noraino konpentsatu daitezke?
 - Gogoratzen dut Adam Gamoran-ek idazitakoa ikasle zuri eta beltzen arteko diferentziaz: udako oporraldian beltzek atzera egiten zuten bitartean, zuriek aurrera.

IRAKURKETAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK

◆ Hala ere, Hezkuntza Sistema batzuetan ikasleen maila soziokulturala ez da horren garrantzitsua.

◆ Beste herrialde batzuetan aldiz, Hezkuntza Sistemak areagotu egiten ditu diferentziak.




PISA EMAITZEN ETA MAILA SOZIEKONOMIKOAREN ARTEKO ERLAZIOA

I
R
A
K
U
R
K
E
T
A

Relation entre la performance des élèves et le contexte socio-économique pour l'ensemble de la zone OCDE

Performance des élèves sur l'échelle combinée de compréhension de l'écrit et indice du statut économique, social et culturel*, et gradient socio-économique pour l'ensemble de la zone OCDE

Performance sur l'échelle combinée de compréhension de l'écrit (moyenne sur l'échelle PISA)



*Chaque point représente 2 000 élèves de la zone OCDE.


Source : Base de données PISA de l'OCDE, 2001. Tableau 8.1.

M. SOZIOEKONOMIKOA

MAILA SOZIOEKONOMIKOA ETA IRAKURKETA-EMAITZAK-G8

Iturria: Canada-ko PISA txostena


Gradients socioéconomiques des pays du G8 et de la Finlande, LECTURE



Maila Sozioekonomikoa

errendimendua

PISA eta Maila Sozioekonomikoa




Alemania, Belgika, Suitza, ... dira maila sozioekonomikoaren arabera diferentzia handienak dituztenak. Japoi, Korea, Islandia aldiz, txikienak.

ZER DIOSKU PISA-K?

- ◆ Ez da Errendimendua altua eta Ekitatearen artean aukeratu behar, biak posibleak dira.
- ◆ Sistema batzuek emaitza bikainak eta aukera-berdintasuna bermatzen dituzten bitartean, beste batzuek emaitza kaxkarrak eta inekitatea bateratzen dituzte.

KITATE
XIKIA

EKITAT
HANDIA




NAZIOARTEKO EBALUAZIOAK ETA INEKITATEA

◆ Bi definizio:

- **Inekitate erlatiboa (PISA)**: 5 eta 50 pertzentilen arteko puntuazio-diferentzia. Azken honetan **batezbestekoa** begiratu behar da. Homogeneotasuna goitik edo behetik izan bait daiteke.
- **Inekitate absolutua (UNICEF)**: Maila duin bat, oinarrizko irakurketak burutzeko gai izatea, lortzen ez duten ikasleen % (2. irakurketa-maila PISA-n).
- Ikus ditzagun Europar Batasuneko datuak.

INEKITATE BIAK KONTUAN HARTU BEHAR DIRA


Iturria: "Innocenti Report Card N° 4" Unicef



Ez baita berdin
homogeneoa
izatea
batezbesteko
altuarekin
edo bajuarekin.
Suediak
adibidez
inekitate
erlatibo
handiagoa du
Espainiak baino
baino
Espainiari
irakurle onak
falta
zaizkiolako.

inekitate absolutua

inekitate erlatiboa: Irakurketa PISA 2000



ESPAINIAKO EKITATE- INEKITATEAZ

- ◆ **Batzutan ustezko ekitate handiaz hitzegin da (agian beste emaitza positiborik ez zegoelako) baina ez da horrenbestera, ikusi ditugun arrazoiengatik.**
- ◆ **Beste batzuk aldiz, LOCE-ren defendatzaileak, bikaintasuna jartzen dute helburutzat, goi mailako ikasleak falta direlako eta PISA-z baliatu nahi dira beraien tesiak defendatzeko.**


BIKAINASUNA

- ◆ **Egia da Espainiar Estatuko arazoan oinarria irakurle bikainen eskasia dela.**
- ◆ **Bikaintasuna ondo dago, baina proposatutako bidea “itinerarioak” badira, horrek ikaslerik txarrenak okerragoak bihurtzera garamatza.**
- ◆ **PISA-k garbi dio hori ez dela politika ona.**

BIKAINASUNA

- ◆ Erresuma Batuko David Miliband Eskola Estandarren ministroak esan du PISA emaitzak komentatuz:
“...nik sinisten dut bikaintasuna izan daitekeela inekitatearen kontrako gure armarik hoberena. Bikaintasun irla isolatuak dira elitismoa produzitzen dutenak.”
- ◆ Bikaintasuna guztientzat da leloa.
- ◆ Bakan batzuentzat izan ezker arazoak areagotu egiten dira.

IKUS DEZAGUN BERRIRO EUROPAR BATASUNEAN GERTATZEN DENA




**Itinerario
oso
markatuak
dituzten
herrialdeak**

**Ikaslerik
txarrenak
askoz
txarragoak
dira**

ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK ETA GARBI ERAGITEN EZ DUTENAK

- ◆ Alde batetik, badakigu irakurzaletasunak desberdintasun soziokulturalak konpentsatu ditzakeela.
- ◆ Badakigu baita hezkuntzan gastatutako diruak ez duela horrenbesteko eraginik maila batetik aurrera.
- ◆ Beste aldagai klasiko batzuek ere ez dira oso eragingarriak: irakasle/ikasle ratioa, sare pribatu/publikoaren banaketa, irakasleen statusa eta soldata, ...

MAILA SOZIOEKONOMIKOA ETA IRAKURKETA-EMAITZAK



Maila Sozial baxua bain irakurketa gustoko


Irakurzaletasunak
Maila Sozialaren
Efektua
Konpentsatzen du

HEZKUNTZA GASTUA ETA EMAITZEN ARTEKO KORRELAZIOA

- ◆ Orohar, erlazio positiboa izanik, oso baxua da.
- ◆ Adibidez:
 - Hezkuntza gastua ikasleko eta TIMSS emaitzen arteko korrelazioa 0,16 da. (Ludger Woessmann-en arabera)
- ◆ Ikus ditzagun datu batzuk.

HEZKUNTZA-GASTUA OCDE-N


Gasturik hand. LHn: Danimarka
Gasturik hand. DBHn: Suitza
Gasturik hand. DBHOn: USA



PISA 2000 GASTUA ETA ERRENDIMENDUAREN ARTEKO KORRELAZIOA

Performances des élèves et dépenses par élèves


Relation entre la performance moyenne sur les échelles combinées de compréhension de l'écrit, de culture mathématique et scientifique et les dépenses cumulées au titre des établissements d'enseignement jusqu'à l'âge de 15 ans, en dollars ÉU, converties à l'aide des parités de pouvoir d'achat (PPA)



IRAKASLE/IKASLE RATIOA LEHEN HEZKUNTZAN G8-KO HERRIALDEETAN

Iturria: NCES


Figure 6. Ratio of full-time-equivalent students to full-time-equivalent teachers in public and private primary school by country: 1999



NOTE: The United Kingdom includes England, Northern Ireland, Scotland, and Wales.

SOURCE: Organization for Economic Cooperation and Development, *Education at a Glance*, 2001, Table D 5.1.


IKASLE-KOPURUA GELAN



SARE PUBLIKO/PRIBATUAN DAUDEN IKASLEEN %-G8

Iturria: NCES

Figure 4a. Percentage of primary and secondary enrollment in private schools, by country: 1999




*Values for percentage of private enrollment in primary and secondary schools round to zero for the Russian Federation.

NOTE: The United Kingdom includes England, Northern Ireland, Scotland, and Wales.

SOURCE: Organization for Economic Cooperation and Development, Education Database, 2001.

IRAKASLEEN SOLDATA G8-KO HERRIALDEETAN

Figure 13. Public upper secondary general teachers' average salaries in U.S. dollars, by level of experience and country 1999



NOTE: Average salaries are gross salaries (i.e., before deductions for income taxes) and are converted to U.S. dollars using 1999 national Purchasing Power Parities (PPPs) exchange rate data.

SOURCE: Organization for Economic Cooperation and Development, *Education at a Glance*, 2001, Table D.1.1.c.


BADAKIGU ORDEA...

- ◆ Hezkuntza Sistema batzuek areagotu egiten dituztela desberdintasun sozialak.
- ◆ Sistema hauek ikasleak errendimenduaren arabera oso goiz **banatzeko** aukera mekanikoa ematen dute.
- ◆ Adibideak: Alemania, Belgika, Luxenburgo...


ALEMANIA: IKASLEAK BIZITZARAKO SAILKATURIK

Maths achievement by type of school (TIMSS)


The line on the left shows the distribution of 8th-grade maths scores for students in Hauptschule, the line in the middle for students in Realschule and the line on the right for students in Gymnasium.



ALEMANIA: ELITEA GYMNASIUM-ERA DOA




IKASTETXEEN ARTEKO DESBERDINTASUNA



ARAZO HAU AREAGOTU EGIN DAITEKE INMIGRAZIOAREKIN

- ◆ Aipatu ditugun herrialdeek, gainera, inmigrante kopuru handia dute.
- ◆ Jasotako emaitzen arabera, ez dirudi inmigrante hauek integratzeko politika egoki bat eramaten ari direnik.


PISA 2000 eta ikasle inmigranteen arazoa: ez da leku guztietan berdin



ZEINTZUK DIRA ORDUAN HOBEKUNTZARAKO FAKTOREAK?

- ◆ Eskola konprensiboa, itinerario desberdinik gabe, konpensatzaileagoa da eta emaitza hobeak ditu. Hala ere eskola konprensiboak “**onak**” eta “**ez hain onak**” daude. Beste zerbait ere badago.
- ◆ Ikastetxearen autonomia handi bat herrialde hobereenen ezaugarri bat dela dirudi, batez ere kontu-emate sistema batekin lotuta (accountability).

IKASTETXEEN AUTONOMIA ETA PISA EMAITZAK



OSO EREDU IKUSGARRIA CANADA DUGU, ETA BERTAN ALBERTA PROBINTZIA

Munduko hoberenak irakurketan, beraiek diotenez hauexek dira faktoreak:

- ◆ **Hezkuntza Sistemari 5 urterekin sartzea.**
- ◆ **Eskola egun osoa. Bereziki ona da egun osoko haurtzaindegia maila sozial baxuko ikasleentzat.**
- ◆ **Hezkuntza Konprensiboa, denentzat, itinerariorik gabe.**
- ◆ **Premia Bereziak dituzten ikasleen integrazio-politika.**
- ◆ **Currículum zentralizatu baina ikastetxe deszentralizatuak.**
- ◆ **Accountability eta test estandarizatuak probintzia mailan. "testing" 3, 6, 9, 12 mailatan.**
- ◆ **Oreka udalerrien autonomiarekin (ikastetxeak).**
- ◆ **Irakaslearen prestakuntza: unibertsitateko 4 urte derrigorrezkoak.**
- ◆ **Administrazioaren kolaborazioa ikastetxe eta irakasleekin.**
- ◆ **Interbentzio goiztiarra era errefortzuak arrisku-ikasleentzat.**

FINLANDIAREN KASUA

Munduko estaturik hoberena irakurketan, beraien ustez, hauek dira arrazoiak:

- ◆ Irakurketa gustokoa izatea.
- ◆ Hezkuntza konprensiboa, aukeraberdintasuna, ekitatea.
- ◆ Ikasleei laguntza indibiduala eskaintzea.
- ◆ Irakasle kualifikatuak satatus onarekin
- ◆ Ikastetxeen autonomia.
- ◆ 5 edo 6 ordu lektibo egunero.
- ◆ Malgutasun kurrikularra eta askatasun pedagogikoa ikastetxe eta irakasleentzat.
- ◆ Homogeneotasun kulturala.



DENA DEN, OCDE-KO ADITUEK BESTE FAKTORE HAUEK AIPATZEN DITUZTE

- ◆ Garrantzitsuen **IRAKASLEEN INPLIKAZIOA** ikasleen emaitzetan eta ikasle guztiekiko **KONPROMEZUA** da.
- ◆ Horrez gain, Sistemak ez ditu bazterbide **mekanikoak** eskaini behar: errepikapenak, itinerarioak, eskola sistema desberdinak... Bestela irakas-sistemak ikasle **problematikoak** gaineratik kentzeko joera izango du eta desberdintasuna eta kalitate eza nabarmenduko dira.

TIMSS 1995 ETA ERRENDIMENDUAN ERAGIN POSITIBOA DUTEN ALDAGAIK (L. Woessmann, Kiel Institute of World Economics, 2001)

- ❖ Sistema mailako Proba Orokorrak (errebalida)
- ❖ Kontroleko mekanismo zentralak curriculum eta aurrekontuetan
- ❖ Eskolen autonomia prozesu eta pertsonaleko arazoetan.
- ❖ Irakasle inzentibatuak eta ikasteko metodologiak aukeratzeko ahalmenarekin.
- ❖ Sindikatuen eragin mugatua.
- ❖ Ikasleen errendimenduaren azterketa zehatza.
- ❖ Gurasoek Irakaskuntza gaietan interesa daitezen bultzatzea.
- ❖ Adiminzazioaren erdi pareko maila batek dirua eta lan administratiboaz arduratzea.
- ❖ Ikastetxe pribatuekiko konpetentzia.

BAINA IKERKETAK AURRERA DARRAI

- ◆ PISA-k ikasleen maila sozioekonomikoari buruzko txosten bat aurkeztuko du aurki.
- ◆ 2003 urteko azterlana Matematiketan zentratua dago eta sakontze-lana egiteko aproposa izango da.
- ◆ Bestalde nahitaezkoa da errendimendu eskaseko ikastetxeei laguntzea eta zenbat hobetzen dute ikustea: horra hor *balio-erantsia* ikusteko metodologiak eta abar.
- ◆ Horrek kontuak ematearen kultura eskatzen du eta hemen lan asko dugu egiteko.